

Erakunde parte-hartzaile baten bezeroen baloreak babestea

909/2014 Erregelamenduaren 38. artikulua betez, Laboral Kutxak, Iberclearreko erakunde parte-hartzailea den aldetik, araudi horretan jasotako baloreak babestearekin lotutako ondorio nagusiak adierazten ditu honen bitartez:

1. Laboral Kutxak bezeroei eskainitako segregazio-mailak

Kontuko idatzoharren kontabilitate-erregistroa maila bikoitzeko erregistroa da. Erregistro Nagusia Iberclearri dagokio, eta xehetasun-erregistroa, berriz, parte hartzen duten erakundeei.

Xehetasun-erregistroaren bidez parte hartzen duten erakundeek eraman beharko dituzte titular bakoitzari dagozkion kontuen kontabilitatea, eta, balio-mota bakoitzari dagokionez, dagozkien baloreen saldoa adieraziko dute uneoro.

Balore Merkatuaren Legean araututako maila bikoitzeko erregistro-sistemaren esparruan ("LMV"), Laboral Kutxak honako segregazio-maila hauek eskaintzen dizkie bezeroei:

- Hirugarrenen Kontu Orokorra: Laboral Kutxak, erakunde parte-hartzaile gisa, bere xehetasun-erregistroetako kontuetan hirugarrenen izenean erregistratuta dituen baloreen saldo globala islatzen dute kontu hauek.
- Hirugarrenen Banakako Kontua: kontu hauek adierazten dute kontu hori erregistro zentratean eramatea adostu duten Laboral Kutxako bezeroek dituzten baloreen saldoa. Laboral Kutxa, erregistro zentratean irekitzea eskatzen duen erakunde parte-hartzailea den aldetik, kontu hori gestionatzeaz arduratuko da, eta bezeroarekin adostu beharko ditu bertan jasotako baloreak erabiltzeko baldintzak.

2. Maila bakoitzaren kostuen deskribapena

Laboral Kutxako bezeroek beren gain hartuko dituzte balore-kontuak mantentzeko ondoren ezarritako kostuak:

Erregistro nagusian:

- Hirugarrenen Kontu Orokorra: ez dago kosturik bezeroarentzat
- Hirugarrenen Banakako Kontua: 150 € hilean, kontuko

Xehetasun-erregistroan:

Ez dago kosturik bezeroarentzat

3. Lege-ondorio nagusiak

LMVk bidezko titulartzat aitortzen du Iberclear edo Laboral Kutxaren erregistroetan inskribatuta dagoena. Beraz, kontuak bereizteko aukerak ez dio eragiten erregistratutako baloreen legezko izaerari edo titularrak jaulkitzailearen, erakunde parte-hartzailearen (Laboral Kutxa), Iberclearren edo hirugarrenen aurrean duen posizioari.

Horri dagokionez, LMVren 13.1 artikulua honako hau ezartzen du:

"Kontabilitate-erregistroko idazpenetan legitimatuta agertzen den pertsona titular legitimotzat joko da, eta, ondorioz, erakunde jaulkitzaileari eskatu ahal izango dio kontuko idatzoharren bidez ordezkaturako baloreak bere alde dituen prestazioak egiteko. "

Eskubide horiek eraginkorrak izan daitezzen, beharrezkoa da eskubidea alde zuzenetik aitortzea erregistro-sistemako dagokion kontuan, LMVren 13.1 artikulua aurreikusten duen gisan:

"Titularrari dagozkion eskubideak eskualdatu eta egikaritzeko, alde zuzenetik haren aldeko inskripzioa egin behar da"

Garrantzitsua da, halaber, LMVren 11. artikulua 3. paragrafoan fede oneko eskuratzailerari emandako babesa nabarmentzea:

"Kontabilitateko erregistroko idazpenen arabera baloreak eskualdatzeko legitimatuta dagoen pertsonaren kontuko idatzoharren bidez kostu bidez adierazitako baloreak eskuratzen dituen hirugarrena ez da aldarrikapenaren mende egongo, salbu eta eskuratzean fede txarrez edo erru larria eginez jardun badu."

4. Konkurtso-araudi aplikagarria

98/26/EE Zuzentarauaren 8. artikulua honako hau ezartzen du: "Sistema bateko parte-hartzaile baten aurkako kaudimengabezia-prozedura bat hasten bada, haren partaidetzatik eratorritako edo hari lotutako eskubide eta betebeharrak sistema horri aplikatu beharreko legeriak zehaztuko ditu." Zuzentaru hori baloreak ordaintzeko eta likidatzeko sistemei buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legeak ekarri zuen Espainiako ordenamendu juridikora.

Aplikatu beharreko legea Espainiako izango da, bereziki uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legea eta Balore Merkatuaren Legea, 15. eta 102. artikuluetan.

5. Emandako informazioaren laburpen-taula

Erregistro Nagusiko kontu-mota	CSDR 38 eskakizuna	Bezeroarentzako urteko kostua	Lege-ondorioak	Erakunde parte-hartzailearen konkurtso-egoera	Arau-erreferentziak
Hirugarrenen Kontu Orokorra	Kontu globalen bereizketa – Dagokion banakapena eskatzen du Laboral Kutxaren xehetasun-erregistroetan	0,00 €	Erakunde parte-hartzailearen konturako xehetasun-erregistroetan inskribatzearen ondoriozko titulartasuna aitortzen da	Titularrak lekualdatzeko eskubidea. Defizita badago: hainbanaketa hirugarrenen kontu orokorretan	9, 15 eta 102 LMV 32 ED 878/2015 19 IBC erregelamendua
Hirugarrenen Banakako Kontua	Banakako kontuen bereizketa	2.800,00 € (1)	Titulartasuna onartzen da	Titularrak lekualdatzeko eskubidea	9, 15 eta 102 LMV 32 ED 878/2015 19 IBC erregelamendua

(1.800,00 € erregistro-kontutik eta 1.000,00 € BME Clearing kontutik. Erregistro zentratean banakako kontu bat irekitzeak BME Clearing-en kontu bat irekitzea dakar)